

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Leandra Elizburu Bilbao

*Aretxabaleta,
Gipuzkoa (1923)*

Aurkibidea



Biografia



Galartza auzoko Etxezuri baserrian jaio zen 1923an. Gurasoak biak zituen Aretxabaletakoak, baina aitaren aldeko aitita Soraluzetik etorria zen. Eskolan urtebetez bakarrik ibili zen, oso gustukoa zuen arren. Gerra garaian ama eta biak Aramaioko Untzilla auzoan egon ziren, izebaren etxean; aita eta anaia, berriz, Zuatzubizkar baserri inguruan morroi. Ondo gogoan ditu orduko bizipenak. Eibarrera ezkondu zen eta ezkonduz geroztik Eibarren bizi izan da beti.

Zintak

ARE-027

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Aretxabaleta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2008-09-25
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Elxpuru, Juan Martin

ARE-028

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Aretxabaleta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2008-09-25
- **Iraupena:** 29 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Elxpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Leandra eta ama "gorriekin" eta aita eta anaia erreketekin

- **Erref:** ARE-027/002
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:01:10. **Bukatu:** 00:06:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>13 urte zituen gerra hasi zenean. Aita eta anaia ganadua eramatera joan

ziren eta bera etxean geratu zen amarekin. "Gorriak" iritsi ziren baserrira eta beraiekin eraman zituzten Leandra eta ama; aita eta anaia, berriz, erreketeeekin geratu ziren eta lau hilabetez ez zuten elkarren berririk izan. Ama eta biak etxera itzuli zirenean, etxea hutsik topatu zuten. Arrasatera eta Gasteizera joan behar izan zuten deklaratzera hiru egunetan; eta, handik etxeratu zirenean, anaia eta aita aurkitu zituzten etxean. Haiek Zuatzubizkar baserrian egonak ziren morroi garai horretan.</p>

Transkripzioa

- Gerratien hamahiru urte neuken, eta hamahiru urtekin ba San Andres egun baten aitte ta nire anaie fan zien txahala eruten zeera, horra Mondrauera, ta geldittu gitzen ama ta ni zerien, etxien, ardixekin eta ganauekin, ta etorri jakun bixen bittartien zerak, reketiak geldittu zien..., gorrixek lelengo aurrera fan zien eta gero atzera bueltan etorri zien eta gorrixek eruen gindduen gu aurrera, ta reketiek geldittu zien atzien ta gure aitte ta anaie reketietan geldittu zien ta gu gorrixetara eruen gindduen. Ta lau hillebetien arkarren barririk ez geuen /ezkeuen/ jakin, nun eozen. Bata egon zien zerien, hor, e, Zuetzun eta Zuetzubixkarren kriauegon zien. Ta gu barriz ahal dan lekuen, nik ardirik saltzeik ez neuen nahi, ta berrogeta bi ardi kendu oskuen zerak. Horreik hogeta bi ardi, eta bestiek, gorrixek beste hainbeste. Baiñe reketiek ez oskuen pagatzen, eta gorrixek euren diruakin pagau eitten zeuen, bai. Haren diruakin ba tia faten zan Durangora kipulie saltzen eta zerakin, ba gauza batzuk ekarri itten gittuen. Ta halakotxe gauzatxo batzuk bagauken. Baiña gero zerien zertu zienien atzera lau hillebete pasau zien eta, ba atzera reketiek aurrera in zeuen. Ta gero guk aurrera fateik ez geun /ezkeun/ nahi, eta Santa Agedako beheara etorri gitzen, gizon batek lagundu oskun, ta zeetik gora, hortik Santa Agedatik gora Mendiguengo zeera, eta pagadi oste batera. Akordau zien gu bagoiazela etxe aldera. Geure etxe aldera fan gitzen eta iñor ez euen etxian, eta ez gekigun /ezkekigun/ nun zien eta nun eozen be ez anaie ta aitte. Ta fan gitzen, auzoko etxe batera fan zan ama, ta amak esan oskun, amai esan utsen ba "Zuetzun eta Zuetzubizkarren daz zure zera ta". Eta hori esan dauen hori, reketek txatxar hori, auzokua, eta kalien ikusi zittuen aitte ta ama junto berbetan eta: "Berkakin hemen kontuz gero, e!, hemen andrie izen gizona izen ezta zertuko ta, begiratuko ta". Ta zerien, hurrengo egunien, zertu gindduen, eruen gindduen Mondrauera orduen gabien, eta ni negarrez, ardixek Mendigurengo neska-mutillekin laga gittuen geukenak, ekarri gittuen berrogeta bi ardi. Ekarki gittuen larogetakatik, batzuk berrogei ta bestiek beste berrogei kendu oskuen eta ba geldittu zien berrogeta bi ardi bakarrik. Hareik hareikin neska-mutillekin eta aitta-amak, aitte ta anaie etorri barik oinddio. Ta etxien ez euen iñor ta gu eruen gindduen zeera, Mondrauera, ta Mondrauen deklaraziñuek ein eta Bitorixara eruen gindduen. Nik eruen neuen pelajie: abarka-galtzak (je-je-je!), perkalezko soiñeko bat, jersixe ez dakit zelakue. Ta ofizial batek esan usten: "pa qué te han traído a tí aquí?", haretxek esan usten eta. Nik zer esango nutsen, erderai be ez nekixen. Eta euskeraz ez dakit zer nekixen baiña erderai be ez nekixen. Ta atzera hurrengo egunien bueltan in ta Mondrauera eruen ta atzera be Mondrauen deklaraziñuek hartu eta atzera autobuskarie zeera, Bitorixara. Gabien atzera etxera. Hiru egun in gittuen han gora ta beheara, ta etxera eruen gindduenien zera, aitte ta ama berbetan, eta zer horrek, agure txatxar horrek esaten eozen nun eozen, ta: "kontuz, gero, andrie izen gizona izen hemen ez da apartauko ta". Ta ba jakin in biher zeuen nun eozen, ta jakin euenien ba zeera. Handik bueltie in geuenien etxera etortzeko hirugarren egunien, eta nire estuasune, nik negar itten neuen, ardixek eruingo oskuela atzera ta, hainbeste denporan zaindu lau

hillabetien eta, ta negar. Eta zeatik itten ete neban negar, zerien, Mondraueko zerien eta. Negar ba ardixegaittik.

2. Gerra-garaian non egon ziren; itzultzean etxea hutsik

- **Erref:** ARE-027/003
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:06:10. **Bukatu:** 00:09:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Etxera itzuli zirenean etxea hutsik aurkitu zuten, ez abere, ez ohe... Lastoa bakarrik aurkitu zuten. Etxetik alde egin zutenean, lehenbizi Aramaioko Untzilla auzoan egon ziren, izebarenean; baina gero Garagartza auzora joan ziren ardiengatik. Gorriek -tartean euren osabak- aurrera egin zuten Durango aldera, baina beraiek ez zuten aurrera joateko gogorik eta orduantxe itzuli ziren etxera. Bien bitartean, aita eta anaia Aretxabaletako Zuatzubizkar baserrian egon ziren morroi.

Transkripzioa

-Aillegau gitzen etxera ta aitta ta anaioi han eozen. Ezer ez euen etxien, ez silla bat, ez koltxoi bat, ez ohe bat, ezebe ez euen. Fan gitzen lelengoko gauen zera, hori su-artie izeten dana, ez dakit zuk jakingo dozun, su artie, eta han bota lastue ta zera ta hantxe ein gauen lo. Ta ez euan, ohe bat ez euan, koltxoi bat ez euan, ezebe ez euan.

-Zuen etxian hori, ezta?

-Bai, gure etxian, basarrixen. Geure basarrixen, Atxabaletakuan.

-Bueltatu eta topau zenduen hutsik.

-Hutsik, hutsik. Beteta laga gauen, txarrixen be ez dakit zenbat arruakua han laga gauen baiña. Ezer, ezer barik topau gauen. Lastue bakarrik. Ezer, ezer barik.

-Eta zuek denpora horretan nun egon ziñazien?

-Gu egon gitzen tian etxien. Lelengo Suiñaan (Suña, Suinaga), Untzilleko Suiñaan egon gitzen. Eta gero ardixek gauken, eta ardixek ba jatekue biher zauen billotsa jaixo biher zauen, eta tian zeera fan gitzen, Garagartzako zer batera, goiko auzoune batera, ta beste etxe batera, eta Santa Ageda parteko etxe batera. Hangotxe gizon batek ekartzen oskun, astien-astien arto bat itten auen eta arto haundi bat ekarten oskun eta Parraixako..., Parraixan egon gitzen etxe zer baten, hantxe geuken ardixendako lekue, berrogei-berrogeta bi ardindako, eta orduen gabien esan euen Tio Garagartzakuak gure irixak, eta: "Aurrera, mutillak!" Eta guk aurrera fateko gogoik ez gauken, Durango aldera fan zien gure irixekin gure tio, eta gu(k) erretirau gitzen zeera, horra etxera, eta hango etxeko gizonak lagundu oskun goittik behera, eta esan dotena, ba akordau zien zerien, goiko tontorrien ezkututzen giñoiazela ardixokin, akordau zien horrek gorrixok zeetik, bestekaldeko partetik handik tiroka hasi jakun eta ezkutau gitzen justo-justuan. Ta bestela geu be aurrera fateko, eta guk aurrera fateko gogoik ez gauken /ezkauken/, aitte ta anaie hemendikaldien gauken eta. Eta gero holakotxe kontuek.

-Orduan zu egon ziñan amakin?

-Ni amakin.

-Eta aitta ta anaia?
-Aitta ta anaie kriaue zerien, Aretxabaletako Zuatzubizkar eta zerien egon
zien.

3. Untzillako eskolan lau pezeta ordaintzen zuten hileko

- **Erref:** ARE-027/005
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:09:50. **Bukatu:** 00:14:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Gerra aurretik ez zen ibili eskolan. 13 urterekin hasi zen eskolan, Aramaioko Untzilla auzoan; baina urtebete besterik ez zuen egin. Burgosko maistra bat zuten irakasle. Hilean lau pezeta ordaintzen zuten eskola. Liburu batetik ikasten zuten dena. Gaztelaniaz ez zekienez, negar egiten zuen erantzuten jakiten ez zuelako. Berari asko gustatzen zitzaion eskola, baina anaiari ez.</p>

Transkripzioa

- Gerra urretik umetan basarrixan zela bizi ziñazien? Ze lan eitten zenduan umetan?
- Basarrixan gerra aurretik, eskolara be ez gitzen /ezkitzen/ fan. Ni hamahiru urte artian eskolara ez nitzen fan, e. Urtebete in neuen eskolia bakarrik. Untzillera bertan eskolara eta maistrie zeeko bat, Burgosko kastillana bat euki neuen, eta berak pena hartu zeuen zertzia, eta han pagau bihar izeten zan; herrire ez gitzen bajatzen, eta Untzillera faten gitzen eta lau pezeta pagau biher izeten zan zeroi, hillekua. Eta [haindako] asko izeten zan, ez euan diruik eta! Ta zertzeko, ez uskula kobrau-ko-ta. Baiñe... Diru asko izeten zonan! Je! Ta laga fatiei eta baserrixen ittaurren artajorran, ardizain, billoszain. Ba haintxe hamahiru urte artien eta. Eta hamahiru urtekin ba urtebeten bat in neuen eskolan. Eta ia nire eskolak haintxe fan zien. Bueno, zerera artien ikasi neuen, "dividir" artien edo holakotxe bat ikasten [...]. Beste, besteik ezebez.
- Eta eskolan neska eta mutill alkarrekin ibiltzen ziñazien? Neskak eta mutillak batera?
- Bai, batera, batera neskak eta mutillek. Eta ez oingo moruen liburuek eta aparte ta, danak liburu batetik kartillie, katona eta gero infanzia edo ez dakit zer izeten zan. Eta liburu batzugin, e. Oingo moruen, e...
- Batekin dana.
- Batekin dana. Batekin, batekin ez zan akabatzen batekin...
- Eta euskeraz ala erderaz?
- Erderaz orduen. Bai. Eta erderaz preguntatzen zeuenien, e, ezebez. Eta erderaz preguntaute kontestaziñoik ez, jakin ez eta negar eitten neuen. Negar eitten neuen. Beste batzuk nik baiño gehitxuaio ekixen erderaz bai edo ez esateko. Eta nik ezebez. Asi ke...
- Maistria kanpotarra zan?
- Burgoskue. Maistra zahar bat. Dio!, gogorra. Ointxe be akordatzen jat zelakua zan. Orduentxe nenguen ikesten hasitta ta ba ez uskula kobrau-ko-ta bialtzeko eskolara ta, ez, ez, nahikue ikasi dau, ya esta; ittaurren eta ardizainera, ala! Ya esta, nire eskolak han fan zien.
- Maistriak kastigurik eta ipintzen zotsuen?

- Ez, kastigu haundirik ez euen ipintzen. Kastigu haundirik ez. Anaiek bieltzie nahi eskolara ta, harek soldautzarako ta gehixao biher izeten zala ta, hari ez jakon /etxakon/ eskolaik gustatzen. Hak ez eban nahi izeten eskolarik. Hari eskolia, eskolaik ez. Eta ni eskolia nahi te /tte/...

- Eta zuri bapez.

- Niri bapez. Asi ke...

- Eta zer egoten ziñazien, goizian eta arratsaldian be bai eskolan?

- Bai, ibiltzen gitzen sasoiien bai. Goizien eta arratsaldien egoten zan. Ni bazkaltzen gelditzen nitzen han baserri baten. Bertan Untzillako zer ondo baten, geure ezaunen etxien gelditzen nitzen. Baina anaiek ez euen nahi izeten eskolara fateik be ez eta zerik be ez. Harek ni baiño eskasao. Nik ez, nik eskolia asko maitte neuen eskolia. Gero, gaiñera, atzera barriz-barri ikasi neuen semiai erakusten nebillela.

- Bai, e?

- Bai, barriz-barriz haretxekin ikasi neuen. Semiai beti pratikatzen eta pratikatzen eta semiakin ikasi neuen.

- Argixa izango zara eta.

4. Umetako jolasak: harri-harrika, tortolosean, karta-jokoan...

- **Erref:** ARE-027/006
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:14:05. **Bukatu:** 00:17:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Arbi burua erabiltzen zuten jolaserako, baloiaren orde. "Harri-harrike" jolasten zuten. Eskola ostean, karta-jokoan ere aritzen zen eskolako lagunekin. "Harri-harrike" jolasaren inguruko azalpenak. "Tortoleska" eta kanikeen ere jolasten zuten.

Transkripzioa

-Eskola ... jolastu eta egiten zenduen rekreuan?

-Bai, eta zerakin ein biharrien, baloiakin ein biharrien arbiburuakin. Je-je. Arbixen burue jakingo dozu zer zan. Ba haretxen arbiburuakin jo ta belaune, ederra belaunekue hartuta ibili nitzen zereko Untzilleko plazan. Bueno!

-Gogorra izango da arbiburua.

-Bueno! Orduan bai gogorra! Oin, e, gogorrekuak pasau die baiñe. Oin, e, hementxe sillan.

-Beste ze jolas eitten zenduen?

-Ba jolasak zerien harri-harrike, ta bestela beste jolas asko ez. Beste jolas asko ez jat /etxat/ akordatzen. Eta mendixen gebitzenien, ardixekin ibili nitzenien hara fanda lagunekin Suiñako zerien jokuan be bai, kartakin jokuen be itten geuen lagunekin. Orduen eskola osteko lagunak, eskolakuak. Han itten gauen, mendire etortzen zien bertako lagunak eta mordue jardutzen gauen zazpitterdixen jokuan, han eskolan ibilita gero.

-Eskolia ta gero?

-Bai. Zazpitterdixen jokuen eta holan.

-Eta bestia esan dozu harri-harrika?

-Harri-harrike, bai.

-Eta zelan izaten zan hori?

-Ba arraixak ein zerien eta harri bat ifiñi eta haretxekin harrixakin. Harri-harrika.

-Lurrian?

-Bai, ein zerien, losan edo [honen moduan] dauen lekuen zer batekin, harri zuri edo klarionakin-edo ein zera ta hantxe, haxe pasau barik zerak eitten, zeñek irabazi. Eta holan, holakotxiek. Eta besterik... Zerak, eraiñ sokiakin, gora bota zera eta han harrapatzen beste bat, ez dakit zer zan. Zela izeten zan ahaztuta daukat haxe. Eta beste jolasak, tortoliska be bai. Tortolisak ifiñi eta klak! jo ta.

-Zelan eitten zenduen tortolisekin?

-Tortolisekin ifiñi zerien eta klas! jo ta aldrebes ifiñi lelengo eta zuzen ifintzen.

-Buelta emun bihar?

-Bai, buelta emun bihar eskuakin atzaparrakin jota. Holan. Eta holakotxe jokuak.

-Kanikarik eta eukitzen zenduen?

-Bai, kanikak be bai. Kanikakin be bai.

-Eta ze egiten ziren, erosi edo norberak egin edo?

-Ez, erosi edo ez dakit, ala norberak zerakin itten zien. Igual norberak eingo zien zerakin, horrekin porlana zerakin, igual bai. Edo erosi be igual. Orduen merkiek egoten zien baiñe diruik ez jeonan /etxeonan/, haxe tristiena, haxe tristiena. Gauzak merkiek eozen baiñe norbera merkiaue. Je-je, norbera merkiaue!

5. Berak gobernatzen zituen etxeko abereak

- **Erref:** ARE-027/007
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:17:55. **Bukatu:** 00:19:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Umetan ardizain ibiltzen zen. 80 ardi inguru izaten zituzten, baina gerra-denboran bai erreketek eta bai "gorriek" ardiak kendu zizkieten eta 42 ardirekin geratu ziren. Berak zaintzen zituen abereak, asko gustatzen zitzaion lan hori. Ganaduari jaten ematera ere bera joaten zen.</p>

Transkripzioa

-Eta esan dozu ardizain ibiltzen zinala, ezta?

-Bai.

-Ardi asko zeukazuen, ezta?

-Bai ardi asko gauken. Larogei ardi edo gauken, baiña kendu oskuen reketiek hogeik kendu oskuen, ta gorriek beste hogeik. Eta geldittu jakun ba beste... berrogeta bi ekarri gittuen etxera. Nik ardixak saltzeik ez neuen nahi. Nik gure nutsen zerai, orduan horrei, bueno!, ganauei, bueno! Ein biharrez eitten nuen, tian etxien gengozen, Suiñan egon gintzenien ez, han beti ondo. Andrazartxo bat zan ta betik kafie gaur emungo dotsuet baiña bixar ez, gastau jat eta. Baiña betik kafia. Goxien-goxien kafie. Gero handik ardixendako jana eitten fan gitzen ba tian etxera, eta ganauekin be bai, eta eguardixen-eguardixen fan biher izeten gauen, txorroki-txortie eruen bihar izeten gauen ganauendako. Bixkarrien hartu eta gero solora arbi

etaratzera. Arbixe janda baeuen ganauak edo, lengusiñiek esaten usten: "Zuk zera in bihozu, hori jandakuoi etara". "Joño, heuk zegatik ez don etara biher", nik. "Heuk zeatik ez don etara bihar? Heuk etaratzen bon, nik etarako jonat". Holan hasarretu eitten gitzen bixok. "Nik amai esango jotsanat". "Esaixon nahi bon!". Eta holan ibiltzen gintzen. Eta harek amai esaten utsen eta niri hasarre eitten usten tiak, baiña "allá películas". Eta gero etortzen gintzen. Baiña beti kargauta etorri bihar izeten gitzen ganauendako zeozer jana ekarri bihar izeten gauen.

6. Berak egindako lana besteen sabelak betetzeko eta beraiek gose

- **Erref:** ARE-027/008
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:19:56. **Bukatu:** 00:22:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

"Gorriei" ahari zikiratu bat saldu behar izan zien eta orduan hil zuen lehendabizikoz animalia bat; nola hil zuen kontatzen du. Besteek jan zuten, baina beraiek ez. Esnea ere animalientzat-eta behar zuten, eta beraientzat, antza, ez zuten; goseak zeuden. Orduan kantina ez zuten osorik betetzen, betetzeko falta zen zatia erreka urarekin betetzen zuten, beraientzat ere esne pixka bat izateko.

Transkripzioa

-Beste behin geuk saldutako zera gorrixiei, arai kapau bat etorri jakun kuadrillara. Eta kuadrillara etorri zanien e, boooo! eindra etorri zan eta. Ene ba!, araxe etorri jaku ardi kuadrillara; eta tioi esan gutsen: "Ze in biher dutseu /bietsau/ hari?", eta, "ha? Hil eta ekarri". Nik lelengoko krimena orduentxe ein neuen. Bai. Aurretik ikusitte, ta bueno. Arai kapau horri sartu nutsen kutxillue, narrutu nauen, erdibittu eta lehengusuek eta bixok txorroki zerien... Txorrokixe jakingo dozu zer dan, ezta? Arte-orrixe, eta haretxen zerien, erdixen sartu ta erdibittu ta etxera ekarri gauen zeera, tian etxera. Ta ekarri gauen eta, ene!, geu jan barik, guri ez oskuen probatzeko emon eta eurak jan zeuen. Ederra! Hori goguan neure bizi guztien, e. Bizi guztien!

-Zuk ekarri eta eurak jan.

-Eurak jan. Eta gabian kipula apartatzen, gabien biharra eitten gauen. Eta gero beti eukitzen gauen, eta gero gure tiok euen geu jan barik gero ardixek, billotxak esnie bihar izaten daue hazteko, eta beti esnie biher izeten zeuen gure tiok. Eta geuretako esneik ez, eta zerandako be ez. Eta amak esan usten: "Horrek kantiñie beteta eruan ezker konforme dao". "Eta zer eingo dotsau?" Geuk egositte laga gaozen etxien, Parraixeko etxe baten gengozen eta ardixek be hantxe gauken. Batu ardixek eta ze itten gutsen? Ba kantiñ hola zatitxo bat bete barik euen eta fan Urketxerrekako erreka, beteten gutsen eta gizona konforme. Eta geuretako esnie lagatzen gauen eta billotsendako be bai. Eta gizona ya! Bestela eruten ez bagauen beteta... Esaten gauen baiña, geu gosiek eta horrei eruen dana-ta, ze in biher dogu /biou/ ba. Eta haxe akordau jaten. "Ama, ze in biher dutseun bakitzu? Hoixe". Ta konforme gizona.

-Ura bota?

-Bai. Ya está.

7. Gazta egiten

- **Erref:** ARE-027/012
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:27:50. **Bukatu:** 00:30:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Bere amak gazta egiten zuen: eskuz egiten zuen, ez makinekin, gaur egun bezala. Eibarrera joaten zen gaztak saltzera. Gazta zelan egiten zuen kontatzen du eta Eibarrera zelan joaten zen. Oraindik, 62 urte geroago, harremana mantentzen dute bertako dendari batekin.

Transkripzioa

-Egiten zuenduen gaztairik?

-Gaztaiek eitten zittuen amak. Amak eitten zittuek. Haik eskuetan. Horreik makiñiakin eta zerakin eitten dittuen moruan, haik eskuetan eitten zittuen, eta nik Eibarren zela urte asko daroieten, ha holako besuen sartute kotzariakin faten zan Eibarrera berak inddako gaztaiekin. Berak eskutan inddako gaztaiekin faten zan. Ba harek bastante beranduen be bai, gaiñera.

-Eta zelan itten zeban gaztaia?

-Eskuetan epeldu zera, gatzagixe emon, traputxo baten ifiñi gatzagixe, eta emon harekin gatzagixe eta euki apur bat epeldute, tenplaute zertzen zeuen, eta gero batu eskuekin eta gaztanontzixetan sartu ta ya geratzen zan, eta hurrengo egunera artien han euki eta han etara. Eta trapu gaintxueta ipiñi zerien, mahi gaiñien edo zerien, eta. Horreik ez, horreik frigorifikua dauke. Horreik ya modernuak die.

-Lehen trapu gaiñian, ezta?

-Lehen trapu gaiñien egoten zien, bentanan ifinitte eta holan. Zela ez euan zerik.

-Eta gero Eibarrera saltzen zittuan?

-Bai, Eibarrera. Eibarrera faten zan.

-Eta zelan etortzen zan Eibarrera?

-Trenien. Hartu otzaratxue, berak sartu zerien eta gure basarrittik hiru ordu laren dao zeera, eta ez euen ez kamiñoik eta ez kotxerik orduen. Ha etortzen zan sasoien oiñez Atxabaletara. Ta gero trena hartu eta zeera, Eibarrera. Eta gu faten gitzen dendara, gu ezkondu gitzenien hasi gitzen. Oinddio be ama hil zan baiñe haren zerien. Ezkondu gitzenien hasi hantxe dendan eta oinddio haren alabiakin tratatzen dou. Bai. Ezkondu gitzela pasauko zien hirurogeta bi urte edo pasauko zien. Asi ke... Tratue luzie, je-je.

8. Ezkontza Arraten eta eztei-bidaia Donostiara

- **Erref:** ARE-027/015
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:32:50. **Bukatu:** 00:34:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Arraten ezkondu ziren, bi lagun lekuko zirela, senitartekorik barik. Lutoz jantzita ezkondu behar izan zuten, eta Donostiara joan ziren eztei-bidaian: egun batean joan, eta hurrengoan bueltatu.

Transkripzioa

-Lehenao [ez gauen egin] bodaik be, gu lau, nire jostunlagune ta beran gizonan basarriko lagun bat fan gitzen Arraera, hantxen ezkondu ta hor esan doten dendan jantzi geuen zera; orduen lutua jantzi bihar izeten zan, eta tio bat hilde gauken eta galtza baltzak jantzi eta Donostiera fan gitzen laurok, hantxen bazkaldu, eta lehenao arkalekin ezin zan lorik be ein aurretik. Je-je.

-Hori zan "el viaje de novios".

-"Viaje de Novios", Eta egun baten fan eta bestitn etorri, San Antonioi eitten jakona ein gutsen. Eta gero nire zeorrek (barreak) madriniorrek bazkarixe preparau zeuen hurrengo egunien eta aitta-amai esan jakuen, geuriei be bai eta bestienei be bai, eta etxien bazkai bat emon gauen eta hurrengo egunien gizona biharrera ta, ba ya está. Ez euen zerik. Viaje de novios haxe. Igeldora orduentxe fan gitzen, eta gaba Donostien pasau ta etxera bazkaltzera. Ta ya está. Akabo gure zerak.

-Orduan nobedadia izengo zan Donostiara joatia, ezta?

-Bueno! Nobedadia ez dakit. Eurai ezkutatziarren fan gitzen gu. Arraten ezkondu ta hantxe armozua ein eta hamarderdietako Pulmana hartu ta ya!, hurrengo egunien, e, klaro, lorik ez... (barreak).

9. Bekatuak eta abade bekataria

- **Erref:** ARE-027/019
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:38:02. **Bukatu:** 00:40:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Dantzan egitea bekatua zen, eta zirriak eta laztanak ere bai. Kontatzen du behin nola joan zitzaion abade bat etxera berarekin zer bait egiteko asmoarekin, eta senarrari ezer ez esateko esanez; Leandraren erantzuna entzuterakoan, abadeak alde egin zuen. Lehen bikote bat banantzea edo ezkondu aurretik umeak izatea txarto ikusita zegoen.

Transkripzioa

-Esatera noian dantzan eittia ta pekatua izango zala lehenao.

-Bai. Hoixe. Bueno! Hoixe pekatua. Terrible! Zirri-eittia ta, laztana emutia ta. Hori. Baiñe zera, eurai be gustatzen jaten zera. Gu, e, argixe ifiñi zeuen gure baserrixen, ta zer baten, ez dakitt, urte mordue da; gure neskiek oin berrogeta hamasei urte edo ez dakit zenbat, eta han gebitzen eta afari bat ein geuen argixa ifiñi zanien eta abare bat zeuen. Eta zerien,

hurrengo zer baten atie jota etorri jat abade bat zerien etorri jat, rta, ene!
Bai. "Honaxe etorri naiz zerien eta, zuk ez esan gizonai hona etorri
naizenik". "Ene, hori bajakixat zetan datorren". "Zuk ez esan gizonai hona
etorri naizenik". "Ze? nik gizonakin ez daukat sekretoik", esan nutsen
holaxe. Ta "Ene, hemen ez jaok /etxaok/ ezer" pentsau zauen harek. "Eta
orduen beruzkuak bisitau ingo dot". Ya esta, hola pasau zan ha, baiñe...
Bestela baakiu zetan etorri zan, ja! Mekauen, esan nutsen gizonai, "zu,
bakitzu zetan etorri dan zera?", izenakin eta dana nekixen orduen, oin
ahaztute dauket izena baiñe. "Hauxe ta hauxe esan dust eta". Bai ba la
puñetas! Gizonakin ez naukela sekretoik esan nutsenien, e...

-Bildurtua ya.

-Bai. Anda fuera! Holakuek be baeozen, e.

-Danetik egongo zien.

-Bai, danetik, danetik. Ointxe letxe. Baiñe ointxe letxe, baiñe lehena ba
zertu eitten zien, aklarau eitten zien gehixao. Oin zazpi urtien, zortzi,
hamarrien arkarrekin egon, ezkondu ta apartau be igual eitten dittun
segiduan. Ta orduen barriz zan apartatzie ta zera, jesus maria ta jose! Ta
aurretik familixia eukitzea be... Bueno! Lehenao gogorra zan, gogorra zan.

-Gero despreziuak eta?

-Bai. Gogorra-gogorra!

10. Meza kontuak eta hilarriak elizan

- **Erref:** ARE-027/020
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:40:35. **Bukatu:** 00:43:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Dena konfesatu behar zioten abadeari. Auzo guztietan zeuden abadeak, etxe
gutxi egon arren. Igandero egoten zen meza, eta derrigorrezkoa zen joatea.
Eliza barruan zeuden hilarriak; etxe bakoitzak bere hilarria zuen, eta hilarriak
nola egoten ziren kontatzen du.

Transkripzioa

-Mezetara ta joago ziñazien.

-Bai, eta konfesatzen. Han esan biher kontu danak, ja-ja-ja!, han esan biher
kontu danak, gaiñera eurai. Ta gero...

-Han auzuan bertan bazekazuen elizia?

-Bai. Auzo danien eozen abadiak. Ez dakit zenbat auzo dao Atxabaletan,
eta auzo dan-dan-danetan eozen. Zazpi etxe eozen lekuen be abadia
zeuan, eta gu, ni Galartzakua nitzen eta han ez dakit hamahiru etxe eozen,
eta han be abadie. Danien, danien. Dan-danetan eozen abadiak. Oin abade
gosie dao baiña orduen danien eozen abadiak. Danien.

-Eta? Domekero egoten zan mezia?

-Bai, domeka guztietan. Gero ba apur bat zertzen hasi zienien ba, baten
bai eta bestien ez eta holan eitten zien, apur bat banatzen hasi zienien,
baiña aurretik, bueno!, aurretik danien.

-Derrigorrez beti joan bihar mezetara?

-Bai. Mezetara ta hilarrixek egoten zien. Hemen lehenao ez zien egoten
baiña hilarrixek mantel zurixakin, kandelakin egoten zien. Hilddakue
bazeuan lazo baltzakin egoten zien. Gero kendu zittuen hilarrixok.

-Hilarrixak eliza barruan?
-Bai, eleixa barruen euren mantelakin, ifini tente bi kandelarekin eta hilddakue bazauen lazo baltzakin egoten zien. Gero kendu zittuen.
-Eta zeñenak izaten zien hilarrixak, herriko jentianak?
-Auzoko etxekuenak. Auzoko zera zein etxe, hamahiru etxe edo die gure auzuen, eta hamahirutik ba zein tokau zan hilddakue edo hilbarri bazeuen bi kandela; bestela sei kandela lazo baltzakin, holan egoten zien.
-Etxe bakoitzak zekan bere hilarrixa?
-Bai, etxe bakoitzak, etxe bakoitzak eukitzen zeuen. Gurien bi kandelakin egoten zien lutoik ez bazeuen. Bestela lutue bazeuen, lau kandela eta lazo baltzakin egoten zan.

11. Dolua

- **Erref:** ARE-027/021
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:43:05. **Bukatu:** 00:44:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Ezkontzerakoan, osaba bat hil zenez, doluz jantzi behar izan zuen: galtza beltzekin ezkondu zen. Osaba hilez gero, hiru hilabetez mantendu behar zen lutoa; eta aita baldin bazen, urtebetez.

Transkripzioa

-Lutua eruan bihar izeten zala esan dozu, ezta, jantzitta?
-Jantzitte, bai. Ni ezkondu nintzenien tio bat zeuen hilde, koiñatien aitta hil zan aurreko zerien eta haren zera ba lutue jantzi bihar izeten zan, eta galtza baltzak jantzi ein nittuen ezkondu nitzenien hortxe dendan, bajatu goititik behera Arratetik eta galtza baltzak jantzi haintxe eta hartu Pulmana eta zeera, galtza baltzak jantzitta.
-Zenbat denpora eruan bihar izeten zan lutua?
-Hiru hillebete tiona. Aitta edo zera bazan, urtebete, urtebete.
-Urtebete baltzez jantzitta ibili behar izaten zan?
-Bai, baltzez jantzitta.
-Eta zapatak?
-Bai, baltzez jantzitta.

12. Arropak: erosi edo egin

- **Erref:** ARE-027/022
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:44:02. **Bukatu:** 00:45:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Zer arropa mota erabiltzen zuten kontatzen du, eta Gasteizera joan zeneko istorioa kontatzen du. Arropa batzuk erosi egiten zituzten, baina beste asko egin egiten zituzten. Berak, jostun zela, arropa asko egin zituen; eta gaur egun ere aritzen da horretan.

Transkripzioa

-Bestela zelan jazten ziñazien?

-Ba ahal dan moruen, ahal dan moruen. Bestela zelan jantziko gitzen?, ahal dan moruen. Ni Bitorixara fan nintzen moruen, behintzet, abarka-galtzekin, perkalezko soiñekuakin, ta jertsixe eztaikit zelakue eruango neuen orduen zera eruen gidduenien, zeetik. Orduen esan ustenien ofizialak: "Pa qué te han traido a tí?". "Pa qué te han traido a tí aquí?" esan ustenien. Orduen negargarri behintzet. Nik baakit abarka-galtzakin fan nitzana. Eta ez dakit galtza luziek ala; perkalezko soiñekue zelakue eruen neuen be badakit. (Barreak). Barre eitteko baiño negar eitteko polittaue da.

-Eta ez zan egongo aldatzeko erroparik eta?

-Bueno. Batzuk hobetotxuao jantziko zien, baiña beste batzuk zertxuao. Zelan, zelan hartzen zan be bai, eta jentiek zela zeuken be bai.

-Etxian eitten zien erropak ala erosi dendan?

-Erosi eindde. Eta ein asko. Nik josten ikesi neuenien zenbat praka pare josi ete dot baserrirako. Asko, e! Josten? Josten ikesi neuenien nik, josten asko gustatzen jat. Oin be bai, e, oin be hemen be eitten dot josten. Batien horrei lepoko zera trapuoi zera apurtzen jatenien, edo botoie falta badau edo, nik josten asko disfrutatzen dot. Hemen be hartu silla bat eta hartu eta josten eitten dot nik.

13. Josten erakutsi zion laguna

- **Erref:** ARE-027/023
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:45:51. **Bukatu:** 00:46:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Aretxabaletako lagun batekin ikasi zuen josten. Lagun horren negozioak aipatzen ditu.

Transkripzioa

-Nun ikasi zendun josten?

-Ba hantxe, esan doten lekuen zer bat, nere madrinie fan zan zeera, ezkondu nintzenien madrinie izen zan etxien ikesi neuen, bai. Arangoiti esaten utsena.

-Aretxabaletakua zan bera?

-Bai. Atxabaletakue zan bera. Eta haintxe ikesi nauen josten.

-Lagunak erakutsi zotsun orduan?

-Bai, lagunak. Gero madrinie be haxe ekarri nauen. Oinddio tratatzen dou. Gero zapaterixie euken. Cuatro Viento, Mondraueko Cuatro Vientokua zan. Hamazortzi zien Cuatro Vienton.

-Entzunda daukat hori.

-Eta hamaikagarrena hamaika bihetzekin jaixo ei zan. Eta hangotxie zeukan gizona, eta gero zapaterixia zeuken, eta oinddio be zapaterixie ez dakit ez dakan.

14. Karburo bila Elorriora alokatutako bizikletaz

- **Erref:** ARE-027/026
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:48:50. **Bukatu:** 00:51:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Argindarra orain dela 55 urte sartu zen. Lehenago, karburoarekin ibiltzen ziren. Bizikletaz ibiltzen ikasteko, Santa Agedan bizikleta alokatzen zuen eta Elorriora joaten zen karburo bila, Kanpazarretik zehar Aretxabaletara arte. Bizikletaz ibiltzen nola ikasi zuen kontatzen du.</p>

Transkripzioa

-Umetan basarrixan ura eta argixa bazekazuen?

-Ez, argirik ez. Argixe esan detsut ba, oin berrogeta hamabost urte edo; oin berrogeta hamabost urte sartu zan argixe etxera. Zerakin, karburuakin. Karburue bakitzu zer dan?

-Bai, entzunda dakat.

-Kandille barik karburua. Eta zerien, bizikletan ikesi neuen hor zerien hartu eta alkilatzen geuen Santa Ageran eta zeera, fan nintzen Elorrixora karburutan. Karburue Elorrixon eta ha zeeko aldatza pasau, hori zereko hori, Kanpazarko aldapia gora ta behera pasau eta...

-Bizikletan, e?

-Bai, bixetan gora ta behera, ta zeera, Atxabaletara. Eta hartu karburua ta Etxezurire. Handik hiru ordu lauren edo dao gure baserrira. Ta orduen lokatzie edarra. Eta bizikletan ikesteko orma ezkiña bat jo neuen eta orduentxe ikesi. (Barreak).

-Ibilixan ikasi zenduen, ezta?

-Bai, ibilixen. Zerien, lapurretan. Lapurretan lantzien behin, josten zerien nebillela, josten edo zerien nebillela hartu te, zerien Santa Agedan hartu bizikletoi te ibilli zer bat eiñ eta ikesi; eta orma ezkiñie jo nauen batzuetan eta hurrengo be atzera fan eta ikesi. Eta bueno.

-Alkilau eitten zenduen bizikletia?

-Honbre!, ez euen bestela, alkilau! Alkilau zerien, Santa Agedan eta Elorrixora karburutan eta zeetan. Haik aldapak gora ta behera pasau in biha daue, e!

-Ggorra zu.

-Bai, orduen. Oin belauok eskasak bajaukanat be, orduan, e.

-Aldapa dezentia dao.

-Orduan argixa..., lelengo karburuakin-eta ibiltzen zinaten?

-Bai, karburuakin-eta. Petrolioik ez dogu, karburua gehixen erabiltzen gauen. Eta kandelie barik karburua gehixen. Argixa orduentxe, ointxe berrogeta hamabost urte.

15. Ura etxe azpian

- **Erref:** ARE-027/028
- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 00:51:53. **Bukatu:** 00:52:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Ura etxe azpian zuten, bonbarekin ateratzen zuten. Argitarako eta gazta egiteko-eta behar zuten.

Transkripzioa

-Eta ura? Urik bazeukazuen?

-Ura bageunken. Etxie baiño berao, beratxuao. ura ona. baiña etxie baiño beherao eta bonbiekin etara bihar. Eta oiñ Urkulukue dauke, oin Urkulukue dauke nahikua. Handik ekartzen daue ta. Ardixendako-ta asko biher, e. ardixendako ta euren dako, euren gauzak eitteko asko biher. Orduen ardixek be gutxiao jauken, eta behixek be bai, ta danak. orduen gure sasoi.

16. Gerra denboran gizon bat etxean ezkutuan; aita fusilatzetik libratu zuten mutil batzuek.

- **Erref:** ARE-027/030
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:53:50. **Bukatu:** 00:56:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerra garaian, gizon bat, Akiso, izan zuten ezkutatuta etxean eta bere aita fusilatzeraz eraman zuten; gorrien aldeko Kale ondoko eta Malkorreko mutil batzuek, ordea, esan zuten ez fusilatzeke, eta bizirik jarraitu zuen. Bizi guztirako izan dute mutil horiekiko esker ona. Etxean ezkutuan izan zuten gizonari buruz hitz egiten du, hiru-lau egunez izan zuten gordeta eta erreketek bere bila aritu ziren Aretxabaletan.

Transkripzioa

-Han Akixo gordeta euki geuen lekue gerratien, zerien. Ha alde batekue zan eta gure aitte be haren aldekie, ta esan utsen: "mutillak, ointxe ibilli bizkor". Eta gure aitte eruen zeuen afusillatzen zerak. Berak, basarri ondoko, eurai esan zerien ibiltzeko, eta formalien esan eta aitta eruen zeuen afusillatzen gurien. Ta mutil batzuek, hantxe zereko kale ondoko mutil batzuek, "Zer zertu dozue?", Malkorreko mutillek eta ez dakit zeñiek. "Hori ez afusillau -gorrixen aldekiek- Hori ez afusillau". Adios ez dakit noiz artien, behintzet zerien, zeruen ikusi artien edo esanda fan zan aittori. Eta, ene, hor dator buelta eindde zerien eta, "Ene, zeñiek salbau zaittu", eta Malkorreko mutillek eta ez dakit zein mutillek zertu zauela, salbau zauela. Eta ha ez zauen ahaztute eukitzen gure aittak.

-Orduan justu-justuan librau zan afusillatzetik.

-Bai. Bera mesede eitten fan eta esan mutillei zer zertuko otsen, eta gero bera zertu, bera bialdu. Bueno!

-Eta zela euki zenduen hori ezkutauta basarrixan? [...]
-Bai, Akixo gordeta euki gauen. Ha ez dakitt zeren zegaittik, zeren aldekua zan, ta hak hanka ein zeuen etxetik eta gero ba haraxe etorri ta haintxe gordeta euki gauen, ez dakit zenbat denboran egon zan, eta zerien. Haintxe zer onduan, beheko iputeiko ate onduan eta ha iputeiko atie haintxe dao oindio, eta Akixo haintxe gordeta euki gauen. Hiru egunien edo lauau euki gauen. Eta Akixona dao kalien, Atxabaletako kalien. Ta haren bille ibilli zien. Oiñ eztakitt reketiek ibilliko zien. Reketiek uste dot ibilliko ziela haren billa. Horretxek, lehen esan doten agure txatxar horren partekuok ibilliko zien, eta horretxeaittik gordeta egon zan ha. Ta gero inok zertu barik zertu zan.
.Ez zan ezer pasau.
-Bai. Librau zanien ya esta.

17. Agure txatxarra, auzoko erreketea

- **Erref:** ARE-027/031
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:56:52. **Bukatu:** 00:59:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

Laburpena:

"Agure txatxarra" auzoko bat zen; bera zen areriorik handiena, erreketea zen. Batez ere, umeendako zen txarra. Klean zehar joandakoan ere, tiroak botatzen zituen. Auzotar askok joan behar izan zuten behin baino gehiagotan Gasteizera deklaratzera.

Transkripzioa

-Eta esan dozun agure txatxar hori bertakua zan, herrikua?
-Auzokue, auzokue, auzokue. Bai, bai, auzuen egon ez balitz hobe.
-Orduan auzuan zekazuen kontrarixorik haundiña.
-Bueno! Umiendako be bai txarra, e. Ha ez zan zeandako bakarrik, umiendako be bai. Umiendako be txarra-txarra ha, eta andriendako ez dakit zelakua izengo zan, baiña umiendako be txarra. Umiek be aurrien erabilzen zittuen harek. Harek zein ez aurrien!
-Bera reketia zan?
-Osua.
-Eta zer eitten zeban, jefe?
-Jefe, nehikue jefe. Orduen jefe eitteko ez zan asko biher eta. Jefe, nahikue jefe.
-Lehen esan dozu etxera bueltan zoiazela tiruak-eta bota zotsuela eta. Bestela herrixan tiruak eta sentitzen zian?
-Bai. Bueltan fan gitzenien kalien aitte ta ama berbetan, nun egon zien eta zer eitteko ta. Berbetan ikusi zittuenien, e, "kontuz berbakin, e, gizona izen andria izen ez da errespetauko ta". Ta zeera fan gitzen, auzoko zer batera ta ba haintxe ta haintxe dao. Abixau harek, neskak, abixau otsen eta ba zitie ifiñi otsen aittei amakin egoteko, eta gero hartute zeera, Mondrauera, horra bialdu ginduen deklaraziñuek eitten. Eta deklaraziñuek eraiñ han eta ardixok laga gittuen guk, esan dotena, zerien, soluen bakar-bakarrik, eta ni negar eta negar zerien. eta zegatik itten ete neuen negar, eta ardixek falta nittuelako. Ta zeera, Bitorixara. Bi buelta erain oskuen Bitorixara, e! Ez guri bakarrik, autobuskarie, e, autobuskarie. Eta bueltan etorritta be agurie haxe. Eta hildde infernutik urtenda be oinddio, oinddio

hor ibilliko don ha bueltaka zerien, bueltaka han ibilliko don. Andriendako be bai ha. Andriendako eta umiendako be bai.

18. Ama, neskame

- **Erref:** ARE-028/001
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aitona Soraluzekoa zen, baina aita Aretxabaletakoa. Ama umezurztegi batekoa zen; hura neskame ibili zeneko kontuak. Senarra izango zuenaren baserrian egon zen neskame zazpi urtean, eta gero Axpe-Arrazolara joan zen. Gripe sasoia zen. Apaizari oiloa eta arrautzak eman behar zitzaizkion, eta nagusiak bera bidali zuen ez zutela esatera; gero, Jauna ez zion eman apaizak amari, ezkondu zenean. "Ezkondu barik gaude gu!", esaten zuen beti aitak. Non ezkondu ziren gurasoak. Ama gaixorik egon zen, gripearekin. Anditzeko gizona zen ugazaba.

Transkripzioa

-Orduan aittitta Plaentzikua zan?

-Aittitte Plaentziakua zan.

-Eta zure aitta hemen jaio zan?

-Gure aitte zerian, Atxabaletan.

-Ama ze zan, bertakua?

-Ama zan ospiziania. Ama zan krieda egon zana hor nire gizonan baserrixan zazpi urtian. Eta gero fan zan Axpe-Arrazolara. Ta Axpe-Arrazolan hori gripe-sasoi haundixoi euki zeuen, da han euen zerien, ta gure aittak beti esaten zeuen, ba han eruen biher izeten jakon ba abariei oillue eta ez dakit zer. Arrautzak edo. Ta uezabak emun ez ittearren, ba zu kriedia zariela esan, eta kriedia zariela esan eta zertu. Ta fan die Gure Jauna hartzen edo, ezkontzen Axpe-Arrazolan, eta zerien, eta, ene!, ta Gure Jaunik emun ez. "Gu ezkondu barik gazez" esaten euen aittek beti, "Gure Jaunik ez joskuan /etxoskuan/ emon zerien. Zeaittik, eta oilloik eta arrautzik eruen ez utselako. Abariez be egoistak be bai, e!, egoistak terribiliek, ez jonan /etxonan/ Gure Jaunak asko balio. "Gu ezkondu barik gaoz", beti esaten euen.

-Orduan zure gurasuak Axpen ezkondu zian?

-Bai. Nire gurasuak Axpen. Han euen etxe baten hori gripealdi haundixoi zeonien. Ba hiltzeko asko zertu ez eta ba txarto egon zan ama gurie. Azkenien, e, lelengo nire gizonan basarrixen, ta gero hara fan zan, Axpe zeera, Anditzera, eta haintxe pasau zeuen haundixenoi. Eta Anditzeko gizonak ikusi behin eta esan i utsen, e, zera: "Hire andriek, e, txahalai emuten jakon artua be jan itten jua". Ta ferixera fan Mondrauera-ta, esan i utsen eta: "Ba ogixe nahikue emon bautsen ez euan jango artorik", esan i utsen gure aittek, eta egixe. Eta harek Anditzeko gizon horrek: "zuk esan abadiai zu kriedia zariela ta ez dakartzula oillorik eta arrautzarik emuteko. Ta esango utsen harek eta gero Gure Jaunik emon ez.

-Baina kulpia ez zan berana gainera, ezta, nausixana zan.

-Bai ba, nausixena zan hori biherroi, baiña berak be emoteik nahi ez. Ja!,

berak be ez euen nahi emoterik eta. Eta gero bestiek Gure Jaunik emon ez. Eta gero gure aittak beti esaten zauen: "Gu ezkondu barik gaozen". Beti esaten oskun.

19. Aita, baserriko lanetan

- **Erref:** ARE-028/002
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:03:02. **Bukatu:** 00:04:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Lanbideak » Neskameak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Ama neskame ibili zen, eta aita baserriko lanetan. Auzoetan laguntzen zuen: mendian, iratan... asto beharrak. Artoa, garia, gaztainak batu... Amak erakutsi zion neskame non egon zen, nor zen ugazaba zaharra.

Transkripzioa

- Ama neskame lanetan ibilittakua eta aittak ze bihar eitten zeban?
- Aittak basarrixen, basarrixen. Lehenao ba auzuetan laguntzen eta holan. Idie eta ekarri bihar zanian, eta mendixetatik eta. Hola laguntzen beti. Albiñatik idie burdixen hartuta idetan Albiñatik, auzokuei laguntzen, eta holakotxe biharrek, holakotxe asto-biharrek. Ba beste biharrik ez euen. Eta gero etxeko zerak, artue ta garixe eta lagundu ba auzoko zera. Eta holaxe. Beste bihar zerik ez. Gero gaztaiñak-eta egoten zien, gaztaiña batzie, eta gaztaiña batzie zanian nire gizonan etxeti be faten zien, eta gaztaiñak batu eta gero lagundu gaztaiñak batzen eta haik hartute erueten zittuen gaztaiñak eta hurrengo ez dakit zer ekartzen zeuen eurak handikaldetik honutze. Eta holan ibiltzen gitzen. Baiñe beti ama egon zan lekuti beti. Anditzera be faten zana, bera, hori kriada egon zan lekura faten zan. Neu be erueten nindduen. Nahiz de gure Jaunik emon ez abadiak. Hori gripe zar haundixoi pasau, geruau be neu be erueten nindduen zeera, bera krieda egon zan lekura. Erakutsi usten uezaba zaharra.

20. Gariaren lanak: ebaki eta jo

- **Erref:** ARE-028/003
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:04:50. **Bukatu:** 00:07:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Baratzean zer zuten: tipula, porruak, patata... Soroan garia, artoa eta babarruna. Gariaren lanak. Beheko auzoetan lehenago heltzen zen, eta hara

joaten ziren igitaiarekin, ebakitzen laguntzera. Urte batean denak usteldu ziren, euriarekin. Noiz ebakitzen den garia toki bakoitzean. Auzolana. Gari jotzea nola egiten zen, larrainean. Trangan jo.

Transkripzioa

-Zer eukitzen zenduen basarrixan ortuan eta?

-Ortuan eta ba zerak, kipulak, porruek, eta holakotxe..., patatie, kipulak porruek...

-Soruan? Garixa ta?

-Garixe ta, artua ta babie. Eta holan egoten zan.

-Garixak eta ze lan eukitzen zeban?

-[...] Garixe lehenao egoten zan ba, heltzen zan ba beheko zerien, auzuetan lehenao; ta gari ebatera, harei laguntzera, ta gure auzuetan ba gurien gorao etxiek bazeuan ba lehenao, eta gari ebaten laguntzen faten zien igeteixakin. Lehenao makinaik ez euen, igeteixekin. Eta urte baten danak usteldu zien. Bai. Eurixe ta eurixe ta eurixe... Hori zerien, neu ezkondu ezkerio. Gero garixe ereittiai laga ein etsen. Gero laga in jakon.

-Ze sasoittan ebaten da garixa?

-[...] Santiago-San Pedro, hortxe. Ba gorao zera baeuen, baserrixe gora baeuen ba. Behera bauen ba beherakue lehenao. Gero goraokuek gerotxuao, San Inazio... Zela dauen, basarrixa zela dauen. Beheko partian badao ba beherao dauana lehentxuao. Ta goikua ba berandutxuao. Gurie beti berandutxuao, gorengo zeuen eta. Murugaingo atxen azpi-azpixen. Bai, hola dao.

-Auzolanian eitten zan orduan gari ebatia?

-Bai, auzolanian eitten zan.

-Eta gero garijotia?

-Garijotia zerien, larriñien. Larriñien zertu, ifiñi lelengo pekotzakin ifiñi zera, ha sikatu, gero larriñien zerakin. Eta bestela berriz trangan, zerien ifiñi harrix ta zerien eta han jo eitten zan.

-Lan nekeza izango zan, ezta, gogorra.

-Bueno. Halaxe zalakuan. besterik zela ez euen. Halaxe zalakuan. Halaxe zalakuan.

21. Astoarekin errotara

- **Erref:** ARE-028/006
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:10:06. **Bukatu:** 00:12:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserría » Baserriko lanak » Artoa
- Baserría » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Astoarekin joaten ziren errotara, zorroa lotuta. Asto txatxarrarekin. Asto gainean joatea gustatzen zitzaion, baina ez zioten uzten; ezkutuan igotzen zen. Bidea luzea zen Uribarrira. Errepide ondoan zegoen errota. Auto gutxi pasatzen zen orduan. Garia eta artoa eramaten zituzten errotara. Gari gutxi izaten zuten. Maizterrak ziren, eta nagusiari ematen zioten garia.</p>

Transkripzioa

- Orduan astuakin errotara?

- Honbre. Astuakin, hoixe, ifiñi zorrue astuen gaiñien zr barik eta sokiakin lotu albardiakin azpittik eta ala! Bai, astuakin, asto txatxarra baeuan txatxarrakin eta. Oin bihorrakin baiña lehenao asto txatxarrakin. Asto txiki-txiki bat eukitzen gauen eta haretxekin; jota leña! Arre! esan eta. Eta asto txatxarra izanda be egoten zan bistan Zaloñatik Galartzara a han ezkutuan. Eta niri asto gaiñien gustaten jaten eta handik pasatzen nitzenien ezkutau... jarri asto gaiñien. Bestela asto gaiñien ez usten lagatzen. Hurrengo agirixa zertzen zanian salto asto gaiñetik eta astua hutsik, eta hurrengo ezkutura aillegatzen nitzenien asto gaiñien atzera. (Barreak). Eta Mondrauera, Uribarrir errotara, ezta? Bide luzia eukiko zenduen zuen basarritik?

- Bai, luziaua. Zeera hartu bihar, ba Mondrauera biharrien ba Baztargaidik... behra, ze erripatik behera zer barik, Mondrauera fan barik, erripa batetik behera faten zan, bidie zeuan, ta karreterara urtetzen zan, Uribarriko karreterara urtetzen zan. Beste errota bat pasatzen zan karreterie baiño lehenao eta hori karretera-karreteratik. Ondo-ondotik pasatzen zan. Egon bihar izeten zan ba, orduan kotxe gutxi pasatzen zan, baiña bertan ba tretxo gutxikin ba kotxiek pastzen zien. "Kontuz, ume, kontuz" esaten oskuen. Eta astue hartu sokatik eta handik ziher.

- Eta zer eruaten zenduen, garixa? Ala artua?

- Artue. garixe be bai batzutan. Gariik asko ez jakun /etxakun/ sobratzen eta artue gehixao. Gari gutxi zertzen zan, eta gero uezabai eruen biher izeten jakon garixe, erreterueke ez dakit zenbat.

-Erreteruak ziñazien zuek?

-Bai, erreteruak, esan dotsut ba.

22. Errenta moduan, garia

- **Erref:** ARE-028/009
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:16:10. **Bukatu:** 00:17:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Errenta garia izaten zen; artoa geratzen zitzaien etxerako, baina ogia erosi behar izaten zuten kalean. Ogirik ez zen egiten etxean. Urtean behin ordaintzen zen.

Transkripzioa

-Lehen errenteruak ziñazienian, nausixai zelan pagatzen zetsazuen?
-Errentie? Garixa-ta erueten jakon. Ta gu gelditzen gitzen..., hutse. Artue bai gelditzen jakun baiñe; kaleko ogixe erosi biher izeten gauen. Garixe euen aixe ya entregau eitten jakon. Guk kaleko ogixakin zertzen gitzen.
-Ez zenduen eitten orduan etxian ogirik?
-Ez, etxerako lain zerik ez gauen /ezkauen/ eukitzen guk. Garixa gutxi erain gutxi eingo zan, edo eztakit nik zer. Ez dakit zer pasauko zan.
-Zer pagatzen zan, urtian behin?
-Bai, urtien behin. Emoten jakon garixe eta gero ez dakit zer emoten jakon. Urtien behin emoten jakon.

23. Idiak, ardiak eta txerriak

- **Erref:** ARE-028/011
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:18:39. **Bukatu:** 00:20:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

<p>Idiak zituzten, behiak eta ardiak. 50 bat ardi. Oiloak. Txerria ere bai, beti bat edo bi. Etxean hiltzen zuten. Odolosteak eta txorizoak. Koipetan edo oliotan kontserbatzen ziren.</p>

Transkripzioa

-Etxian ganauak, ardixak eta zekazuezen?
-Irixek, gehixen irixek. Gero behixek. Hiru bat behi ta ardixek. Ardixek oin beste ez, e. Berrogeta hamarrren bat ardi edo holakon bat izeten zien. Ardixek gutxiao. Bai. Irixek eta hiru bat behi. -Gero txarrixak eta oiluak eta zer gehixao eukitzen zenduen?
-Oilluek eta; paittak be bai batzuek eta holako animalixe zer batzuek.
-Txarrixa?
-Txarrixe beti. Txarrixa bai. Txarrixa bat edo bi beti, beti.
-Gero etxian hiltzen zenduen txarrixa?
-Bai. Txarrixa etxien. Saldu nekez txarrixa. Txarrixa etxian. Haundixa bazan, txikixa bazan, txarrixa etxian.
-Gero txarrixa hildakuan txorixuak eta urdaixa eta.
-Bai, bai. Lelengo odolostiek, mortzillek eta horreik, eta gero txorixuek eta. Gero haik zerien sartzen zien, koipetan sartzen [...]
-Konserbatzeko?
-Bai, olixotan edo koipetan sartzen zien eta. Han sartu ezkerio lantzian bat. Gero babai be sartu biher izeten jakon baten bat, eta hola.

24. Jatekoa urri, gerraostean

- **Erref:** ARE-028/012
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:20:05. **Bukatu:** 00:21:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Jaten zutena: normalean babarruna, jaietan garbantzu. Porru-patatak, azak... Ezkondu ostean gosetea izan zen. Errazionamendua. Jatekoa eskas, etxea ordaindu behar...

Transkripzioa

-Zer jaten zenduen normalian?

-Normalien babie gehixena. Gehixena babie. Garbatzua jaietan eta holan.

-Especiala haura?

-Bai. Bestela babie gehixen. Eta porru-patatak eta azak be bai. Azak etxien eitten zien eta azie be bai jaten zan. Gero ezkondu ostien gogorraua izen zan, orduen ezkondu ostien zera eon zan eta.

-Gosetia?

-Bai. Apur bat gogortxuao izen zan guretako.

-Razionamentua-ta egongo zan, ezta, gero gerraostian?

-Ezkon ostien, e, ño!, jan eskasidadie (sic) ta, dirue be eskasidadian eta, etxie pagau in bihar-eta rentan-eta.

25. Baserriko lan-banaketa

- **Erref:** ARE-028/017
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:26:56. **Bukatu:** 00:29:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserriko lan-banaketa. Amak etxean eta kanpoan egiten zuen lana. Aita asko ibiltzen zen kanpoan, lagunei laguntzen. Gerra hasi zenean, 15 urte zituen anaiak; soldadu joan zen Burgosera, eta hanka apurtu zuen han. San Pedrotan bisitan joan ziren. 17 urterekin, Burgosko katedrala ikusi zuen, eta trenez bueltatu zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-09

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com